



2. CANVAS EREDUA

2.1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaintza Goierriko herri txiki bat da, zeinetan oso jende gutxi bizi den, hain zuzen ere, 124 pertsona.

Lursail handiak dauzka eta ingurunea mendiz josita du. Donostiatik 40 minutura dagoen herri bat da, eta Ordiziatik (10.000 biztanle dituen gertuko herri bat) 10 minutuetara dago. Oinezko bide bat ere badago 2 herri hauek kontaktuan jartzen dituen: Peri-Bidea. Garai batean azokara saltzea joaten zen jendeak egiten zuen bidea da. Hortaz ere hitz egingo diegu eta garai bateko kultura eta ezagutzak transmitituko dizkiegu udalekura joaten diren umei.

Ezaugarri guzti hauek kontuan izanda, gure helburua baserri-eskola bat antolatzea da. Ekintza hau umeentzat izango da eta adinaren arabera aldatuko dira jarduerak beraien beharretara egokitzeko. Hori bai gure helburua da hiritik kanpo bizitza dagoela kontzientziatzea eta herri txiki hauek gure ondarean duten garrantzia estimatzea.

Baserri-eskola hau hirietan ematen ari den masibidadea murrizteko egin nahi dugu, izan ere, turismo masifikazioa dela eta, geroz eta zailagoa da hirietan bizitzea: etxebizitzaren prezioengatik, bizitza estiloa... Bestalde, baliozko landa eremua sortu nahi dugu, izan ere, garai batean, belaunaldiz belaunaldi transmititzen ziren landaren ezaugarriak eta horren inguruko jakindura, gaur egun galtzen ari den baliozko jakinduria da eta.

Hortaz, baserri eskola bat sortu nahi dugu aipatu bezala herri hauek bisibilizatu daitezen, eta herriaren esentzia galdu ez dadin umeak bizitza hori ezagutaraztean.